



# The Cult, Melvins eta Neko Case Azkena Rock Festivalen kartela ixteko

Ian Astburyren taldeak 'Sonic Temple' joko du, bere albumik enblematikoena eta dagoeneko 30 urte bete dituen

**Azkena Rock Festivalek** (ekainak 21 eta 22, Vitoria-Gasteiz) bere kartela ixterakoan berriro ere argi utzi du egiatzko rock & rollaren tenplua dela. **The Cult** taldea berriro dator eta ate handitik sartuko da, gainera. Duela bi urte arrakasta itzela izan zuen jaialdian eta oraingo honetan 'Sonic Temple' disko enblematikoaren 30. urtemuga ospatzeko egiten ari den biran dator. Talde legendarioaren buru Ian Astbury karismatikoa da eta Mendizabalako hau izango da europar birako lehenengo hitzordua.

**Melvins** da ARFren talderik kuttunenetakoa eta Espainiara dator berriro hamarkada bat ere gero. Garai bateko arrakastetan eroso geratu ordez, Gasteizera datoz forma betean daudela eta garai batean Kurt Cobain eta musikaren historiako beste hainbat inspiratu zituzten mutiko haiek lehen adinako gogoz jarraitzen dutela erakusteko. **Neko Case** ere hemen izango da; The New Pornographers taldearekin musika mundua hankaz gora jarri ondoren bakarka hasi eta country-folk alternatiboko eta indie rockeko emakumerik nagusienetakoa da egun eta gure artean izango da. Iaz argitaratu zuen 'Hell-On', bakarkako bere zortzigarren albuma, bere sormena beti bezain bizirik dagoela nabari da eta axola dien gauzez hitz egiteko erabiltzen duela musika ere nabari da.

Amaitzeko, **Mt. Joy** ere gurekin izango da, amerikar rock garaikideko talderik oparoenetakoa izan daitekeena, eta gure herrialdean debutatuko du Espainiako erreferentziazko rock-jaialdian. Osasun arrazoen ondorioz, **Unsane** ez da arituko jaialdian. Arazoak gainditu eta berriro ere agertokietan laster ikusiko ditugula opa diegu. Partaide berri gehiago ere badugu, DJ sorta harrigarria, hain zuzen ere: **DJ Bop Hop, Laura Preminger, DJ Señor Lobo, Cristina Sandalia, Deborah Devobot, Holy Cuervo Djs, DJ Arbis vs DJ Gautxos** eta **Wolf-A DJ**.

## AZKENA ROCK FESTIVAL

2019ko ekainak 21 eta 22

Mendizabala. Vitoria-Gasteiz

### Ostirala, 21

STRAY CATS/ THE B-52S/ DEADLAND RITUAL/ BLACKBERRY SMOKE/ GLASSJAW/ THE LIVING END/ LUCERO/ INGLORIOUS/ TROPICAL FUCK STORM/ THE HILLBILLY MOON EXPLOSION/ SURFBORT/ MICKY & THE BUZZ/ GIANTE

**Trashville:** BLIND RAGE & VIOLENCE/ THE CHEATING HEARTS/ DOLLAR BILL & HIS ONE MAN BAND/ LOS DUQUES DE MONTERREY

**DJak:** DJ BOP HOP - LAURA PREMINGER - DJ SEÑOR LOBO - CRISTINA SANDALIA





**Larunbata, 22**

WILCO/ THE CULT 'A SONIC TEMPLE'/ TESLA/ MELVINS/ PHILIP H. ANSELMO & THE ILLEGALS/ NEKO CASE/  
CORROSION OF CONFORMITY/ MEAT PUPPETS/ MORGAN/ MT.JOY/ STARCRAWLER/ GARBAYO/ OUTGRAVITY

**Trashville:** LOS TORONTOS/ PUSSYCAT & THE DIRTY JOHNSONS/ THE COURETTES/ DEADBEATZ

**DJak:** DEBORAH DEVOBOT - HOLY CUERVO DJS - DJ ARBIS vs DJ GAUTXOS - WOLF-A DJ

**Bonua:** 120 €

**Bonua + Kanpina:** 130 €

**Eguneko sarrera:** 65 €

Epeka eros daiteke.

**Salmenta:** <https://www.azkenarockfestival.com/es/tickets-festival/>

